

BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA JUANJO ATXA MINDEGIA PILOTALEKUA ERABILTZEKO ESKAERA. 2026-2027KO DENBORALDIAURREA

Eskatutako instalazioa: <input type="checkbox"/> Pilotalekua <input type="checkbox"/> Kiroldegia						
Kirol-kluba:				Helbide soziala:		
FIK:				Erregistro zk.:		
Kirol-klubeko burua:						
Harremanetarako pertsona:					tel.:	e-maila:
Kirol-mota	Maila	Eguna*	Ordutegia	E/KKE**	Datak (hasi/akitu)	Monitore nahiz entrenatzaileen hileko diru-saria
* Zehaztu: al.-ar.-az.-og.-ol.-lr						
**E: entrenamendua; KKE: klubeko Kirol eskola						

ESKAERA:

- Epea: 2026ko ekainaren 1eko 13:00etatik ekainaren 8ko 10:00etara.
- Aurkezteko tokia: Baztango udaletxeko erregistroan, **erregistro elektronikoz**
- ERABILTZEKO BALDINTZAK:
 - Erabiltzeko egutegia: 2026ko uztailaren 1etik 2026ko irailaren 15era.
 - Eskatzen ahal den ordutegia: Al.-ar.-az.-oz.-ol.-lr. 9:00etatik 22:00etara.
 - Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldi berean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu.
 - Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake, sortutako beharren arabera.
 - Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
 - Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak edo/eta kirol-instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta Udalak agindutakoa ez betetzeak Udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar lezake
 - Beharrezko kirol-materiala kirol-klubak berak eraman beharko du.
 - Kirol-pistan kirol-oinetako (zola idor eta garbikoak) eta kirol-arropa egokiekin sartu behar da.
 - Kirol-instalazioan ezin da publizitate kartel iraukorrik paratu.
 - Instalazioan, bakar-bakarrik, baimendutako jarduerari dagozkion materialak sartu daitezke eta inoiz ibilgailurik, karrozik, orgik, eskorgik edo bertzelako edozerik zola hondatzen ahal duena
 - Eskatzaileak instalazioko zola ez hondatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu
 - Klub eskatzailea instalazioaren erantzule izanen da baimendutako egun eta orduetan. Beraz, kirol-klubek antolatzen dituzten kirol-ekitaldietako erantzukizun guztia kirol-klubek berek izanen dute. Hori horrela, instalaziora, harmailak barne, eskatzaileak baimendutako pertsonak bakarrik sartzen ahal izanen dira, eta eskatzaileak izanen du instalaziora sartzen diren pertsonak kontrolatzeko eta sarbide-kontrolaren ardura.
 - Eskatzailearen ardura izanen da instalazioa garbi eta egoera onean uztea.
 - Eskatzaileak, edozein aldaketa balitz aurrikusitako erabilera egutegian, jakinarazi behar dio, lehenbailehen, aldaketa hori bai instalazioko arduradunari (kiroldegia tel. 650586791; frontoia tel. 948452145) bai udalari (baztan@baztan.eus), eta Giltxaurdi Udak Kirol Instalazioari (giltxaurdiuki@baztan.eus).
 - Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.

“41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jarduera eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.

42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala

erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla.”

16. Adingabeek arduradun bat izanen dute beti.
17. Eskatzaileak onartzen ditu eskaera-orri honetan zehaztatutako baldintzak eta baita Baztango Udalak gerora ezartzen ahal dituenak era.